

### **1.- COVID19 datuen hiri-behatokia, eta zerbitzuak herritarren beharretara egokitzea**

Pandemiak eta pandemiaren ondorioek goitik behera aldatu badute poblazioaren errealitatea - eta hala izan da-, derrigorra da erakundeen lehentasunen agenda eta gobernu-planak egokitzea. Proiektu honen bidez, lehenik eta behin, ikusmira zabala lortzeko moduko adierazle batzuk definitu nahi ditugu, poblazioa eta herritarrak zertan diren eta zer bilakaera daramaten jakiteko eta monitorizatzeko (jarduera ekonomikoa eta soziala, hauskortasun-egoerak, jendarte jakin batzuen egoerak eta abar), eta, aldi berean, situazioa zuzentzeko handik eta hemendik hartzen ari diren neurrien ondorioak egiaztatzeko.

Bestetik, uste dugu erakundeek, zerbitzuak egoera berrira egokitzeaz batera, gogoeta egin, eta lehentasunen agenda birplanteatu egin behar dutela: definitu beharko dute zein diren beti-beti bermatu beharreko funtsezko zerbitzuak eta haiexek indartu eta lehenetsi, alde batera utzita gobernu-planean aurreikusita zeuzkaten beste jarduera batzuk; beste era batera planteatu beharko dituzte herritarren arreta eta erakunde eta herritar arteko harremana; zerbitzuak eskaintzeko beste paradigma bat beharko dute, eta abar.

Gakoa da benetan zer gertatzen ari den ezagutzea, gure zerbitzuak gaur egungo errealitatera egokitzea, eta ikasi behar izan dugun hori begi aurretik ez galtzea, alegia, gogoeta egitea eta paradigma aldatzea, ekinez.

### **2.- Gardentasuna eta kontuak ematea (ikuskaritza soziala, aurrekontuen gardentasuna...)**

Herritarrek usuen egiten diguten kritiketako bat izaten da zaila dela aurrekontu publikoen kudeaketa ulertzea; eta, ondorioz, ulertu ezin horrek, ezjakintasunez, kudeaketa bera osorik ezbaian jartzea ekarri ohi du sarri. Bizi duguna bezalako krisi-egoeretan (finantza-krisia, COVID-19 krisia eta beste), ondorio hori larriagotu egiten da eta herritarren eta erakunde publikoen artean mesfidantza areagotu, urrundu egiten baitira.

Aurrekontuak argitaratzeko eta kontuak azaltzeko orduan euskal erakunde publikoek legezko estandar ondo egonkortuak darabiltzate, baina hala ere, herritar gehienek ez dituzte ondo ulertzen. Euskal erakundeen egiturari, gainera, administrazio publikoak maila bat baino gehiagotan banaturik daude, badira eskumen partekatuak eta badira delegatuak, eta herritarrentzat are eta gaitzagoa da ulertzea nola kudeatzen diren baliabide publikoak, kobratzen zaizkien zergetatik finantzatzen eta zuzen-zuzenean eragiten dieten baliabide horiek alegia.

Erronka da aurrekontuen arloan tresna bat sortzea gardentasunerako eta kontuak emateko, eta, haren bidez, herritarrek aurrekontu publikoak ulertzeko modua izatea eta, ondorioz, kudeaketa publikoa artez baloratu eta politika publikoetan orain baino gehiago parte hartzea.

### **3.- Open Eskolako edukiak garatzea (pertsonek zuzenak izaten hezteko, herritarren ahalduntzea, eten digitala eta herritartasun aktiboa)**

Herritarrekin garatutako partizipazio-prozesutik iritsi zaizkigun eskariei erantzun nahi badiegu, ondo identifikatu nahi badugu datozen urteetan zer lanetan engaiatu behar garen, moduetako bat izan daiteke OPEN ESKOLAREN antzeko espazio bat erabiltzea eta optimizatzea. Eskola ireki horren bidez, mundu guztian bizi dugun pandemiaren ondorioz sortu zaizkigun erronka berri asko landu ahal izango ditugu.

OPEN ESKOLARI esker, erakundeok zuzeneko interakzioa izan dezakegu herritarrekin, eta behar duten guztia eskaintzen saia gaitezke, hartara

- desberdintasun digitalak gainditu ahal izateko (eten digitala, alfabetatze digitala)
- herritarren ahalduntzea lantzeko,
- espazio bat eskaintzeko, herritarrak etika publikoaren arloan kontzientziatzeko eta hezteko,
- eta ea lortzen dugun erkidego aktibo bateko parte izatea, erkidego irekia, elkarrekin parte hartzeko pronto, elkarlan-gobernantza-ereduak eskatzen digun erantzukidetasuna bere egiteko prest.

Eredu inklusiboa izan behar du, herritar guztien presentzia eta parte-hartzea bermatuko duena, eta Euskadiko edozein udalerrri edo erakundetean aplikatzeko modukoa.

Erronka da Open Eskolaren barruan tresnak, mekanismoak eta ereduak eskaintzea, haien bidez herritar trebatuagoak, prestatuagoak eta zintzoak gertatzeko, nahikoa gaia badutenak haien parte hartzea Gobernantza Publikora bildu ahal izateko.

#### **4.- Tresna bat garatzea legeak/arauak/erregelamenduak egiteko herri-ekimenak biltzeko. Euskal erakunde guztiak erabili ahal izango dute (Eusko Legebiltzarrak, batzar nagusiek edo autonomia-, foru- edo toki-exekutiboek)**

Egia da dagokion araudian zehatz-mehatz jasota dagoela zer prozesu bete behar den herri-ekimen legegilea, araugilea edo erregelamendugilea sustatzeko, baina erregistratzen diren proposamenak hutsaren hurrenak dira, herritarrek oro-har ez dutelako ezagutzen eta zaila delako prozedura bakoitzak eskatzen dituen atxikimenduak biltzea ziurtaturik eta seguru. Aurkezten diren ekimen asko bertan behera geratzen dira atxikimenak jasotzeko epea amaitu egiten delako, eta aurrera egiten dutenak ez datoz herritar-talde anonimoetatik. Bat eta beste, azkenean, herri-ekimenen helburua lausoturik geratzen da neurri batean.

Era berean, atxikimenak baliozkoak direla ziurtatzeko lana konplexua da, eta, erraztekotan, administrazioen arteko elkarreragingarritasuna beharko da.

Kontua da tresna bat sortzea herritar-taldeek erabili ahal izan dezaten edozein ekimen legegilea, araugile edo erregelamendugile sustatzeko Euskadirako, eta bide hauek zabalduko dituen:

- Prozesuari publikitatea eta gardentasuna ematea (prozesuari lotutako dokumentazioa webgunean argitaratzea: batzorde sustatzailearen osaera; erregulazio-proposamenaren hasierako fitxa; testu artikulatua; laguntza- edo finantzaketa-iturriak, halakorik baldin badago; izapidetza onartzeko edo ez onartzeko ebazpena; balizko errekurtsioak eta ebazpenak; atxikimenduak jasotzen hasteko jakinarazpena; zenbat atxikimendu jaso diren; atxikimenduak ziurtatzeko ardura duten fede-emaileak; baliozko atxikimenduen ziurtagiria; izapidetzea abiarazi izanaren jakinarazpena, legebiltzar edo batzar nagusietarako estekaren bidez).
- Atxikimenak elektronikoki biltzea, seguru, egiaztatze moduan, arbuiatu ezin izateko moduan eta ikuskatzeko moduan (beste ezertarako erabili ezin direlarik, eta ezin direlarik baimenik gabe ez suntsitu ez aldatu ez inon zabaldu).
- Atxikimenduak egiaztatzea eta ziurtatzea, eskura ditugun elkarreragingarritasun-sistemak erabiliz (NAN, udal-errola...)

Tresna bera Eusko Jaurlaritzaren plataforman egongo da, edozein euskal administraziotatik eskuragarri, eta software aske gisa eskainiko da, euskarri tekniko bat lagun, nahi duten herritar sustatzaileek erraz instala dezaten kanpoan.

**5.- On line zerbitzu bat eta zenbait bulego pilotu erdipresentzial, gobernu irekiaren parametroetatik adinekotzat diseinatzen diren bizi-proiektuetan informazioa, orientazioa, bitartekaritza eta laguntza emateko.**

Euskadi gizarte zahartua izateko bidean dago.

Proiektu honen helburua da 65 urtetik gorako edo erretirotik gertu dauden pertsonen informazioa, orientazioa eta bitartekaritza pertsonalizatuak ematea, erretiratu hurrean direnetik bizitzaren amaierara arte izango bide dituzten bizi-proiektuei buruzko hainbat gairi buruz, bizitza betea izan dezaten eta gizartean parte hartu ahal izan dezaten.

Hau da, bizi-zikloaren fase ikaragarri zabal horretan, erabakiak hartzen lagundu nahi zaie, bakoitzak bereak, informaturik eta jakinaren gainean, etapaz etapa nola bizi nahi duten hauta dezaten.

Eta, horretarako, laguntza-baliabideak sustatu nahi dira, belaunaldi berrien profilera, itxaropenetara eta oinarrizko balioetara egokiturik, arreta espezializatua, pertsonalizatua eta integrala eskainiz, *gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin* bat etorrira (interes orokorreko gizarte-zerbitzuak: pertsonentzako zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...).

Alegia, gobernu irekiaren printzipioak politika zehatz batean aplikatzea da egin nahi dena. Hots, 3 bulego diseinatu eta inplementatzea jendarte horri kasu egiteko (presentziala/erdipresentziala), bai eta on-line arreta-zerbitzu bat ere, hartara, patizipazio- eta kodiseinu-prozesu baten bidez haiekin batera alde aurretik definitzeko zer adostasun behar diren eta zer esparru diren lehentasunezko, sistema bakoitzeko baliabide espezifikoetan (osasuna, gizarte-zerbitzuak, bizi arteko ikasketa) arreta osoa emateko, eta, hortaz, arreta bereizia, baina haiekiko konektatua.